

## EUSKAL HERRIKO KARLISMOAZ IKERKETA BERRIAK

BARAHONA AREVALO, Renato: The making of carlism in Vizcaya (1814-1833), University microfilms International Ann Arbor, Michigan U.S.A. 1983, 623 orri.

URQUIJO GOITIA, José Ramón: “Represión y disidencia durante la primera guerra carlista. La policía carlista” in Hispania SLV/159. 1985, 131-186 orr.

DEL RIO ALDAZ R.: Orígenes de la guerra carlista en Navarra (1820-1824) (Institución Príncipe de Viana), Pamplona 1987, 471 orri.

Gure gizartean, lehen gerrate zibil sakona, garaikide aroan, lehen guda karlista dugu ezbarik gabe, nahiz eta lehenagoko urteetan ere gatazka gogorak gertatu; 150 urte dira zazpi urteko gerrate hura gihartu zela. Baina dirudienez hain urrutí ez dauden gertakizunek ez dute ez, gure ikerlarien begiradarik zirikatzen. Sintesis orokorrak, ikuspegi ideologizatuak, uste ustelak eta abar liburutan maiz agiri zaigu, nahietaezko erreferentzia baita gure egungo gizartean abiatzen. Baina eredu interpretatiboak ez dira ez kasu gehienetan erabat egokiak, gure iraganaren ezagutza, erudizio historikoaren premian dagoenean. L. Lefebvrek esaten zuen erudizio barik ez dago historiarik.

Ez dugu orain, azken hamar urteotan Euskal Herriko Karlismoaz idatzi diren izenburuen zerrenda eskainiko. Ikerlarien lanak, ea ea ezezagunak, plazaratu eta arakatu nagi ditugu. Ikerketa egiteko moduan, erudizioz orniturik dauden lanak dira, sorburu berriak, bertoko zein atzerriko artxiboetan murgil du dira eta beraienak ez dira ohizko eritzi arruntak. Bultzada eta aurrerapausu bat eskaintzen dutela uste dugu. Erudizioz gain, metodologi eta arau teorikoak, historia nagusikoak alegia, nabarmenak dira.

R. Barahonaren ikerlanak, karlismoaren osokuntza Bizkaian aztertzen du. Estatu Batuetako Princentoneko Unibertsitatean 1979.ean aurkeztu zuen, doktorego maila lortzeko eta 1983.ean facsimilez argitaratu da. Atzerritarrek euskal historiako ikerlanak burutzeko unean, aurkikundetzat jotzen dutena, sarritan bertoko ikerlariantzat goi mailako dibulgazioa besterik ez da, hau da, gauza jakinen laburpena. Eta karlismoaz ingelesez argitaratu direnen artean badaude

adibide argiak. Baina liburu hau salbuespen estimagarria da, ekarpen haundikoa alegia.

Autorea jakinaren gainean dago, karlismoa bezalako gaia topikoz josirik aurkitzen dela eta hasieran epe luze (1700-1850) baten azterketaren gutiziaz egon arren, ikerketa, galdera zehatzaren inguruan egituratzen da. Nola sortu eta eratu zen lehen karlismoa, zergatik; zein da jatorria. Hala ere itaun nahiko korapilotsua, hesparru askotan zergatiak dituelako. Aipaturiko ikerketan hesparru politiko ideologikoak aztertzen dira gehien bat.

Sarreran beharbada Bizkaiko historiaz adituak ez direnentzako prestatua, erakundetzearen arazo nagusiak azaltzen dira.

Lehen kapituluan aldiz 1814.tik 1820.era Fernando VII errestituzioaren ondorioz, gihartu eta indartu ziren joera politiko-ideologiko tradizionalistak ditu aztergai. Lege zaharreko buruzagien arteko batasun politiko-ideologikoa puxkatu dago jadanik eta paradigma berriaren lehen adierazpen nabarmenak eratu doaz. Hala ere, azpimarratu beharko litzateke independentzia delako gerran, Bizkaian, moeta berriko liberalismo konstituzionalistaren ildotik, lehen gobernu modernoa sortu zela jadanik, Zamakoladan nolabait lehen guda karlistaren hastapenean gaudela eta 1796.eko urtez geroztik garaikide aroan iraultza liberalaren eraginpean erantzun moeta desberdinak ateratzen, hasten direla. Jakina, autorearentzat agian, ikerketa, epez kanpo luzatzea, izango litzatekela dirudi. Ondoko urteetako esperientzia liberala, 1820-1823, sakonki aztertzen da, batez ere ikuspegi politikoak eta ideologikoak. Haundiki askok begi onez edo halabeharrez hartzen du egoera berria. Hala ere, maiorazgoen ezabaketak eta zentralismoaren eraginak oposizioa gorpuztera laguntzen du. Kleroak ere partaidetza aktiboa frogatzen du oposizio honetan eta guda zibilaren txinpartak berriz agirian, nabari dira. Garaiko begirale baten ustez, euskararen ohizko erabilpen joriak, bizimodua hesian mugatuz, eta kleroaren eraginak, konstituzionalismoaren aurkako jarrera areagotzen zuten (ikus 111 orrialdean). Erregea, erlijioa eta Fueroak erresistentziaren ikurrak ziren. R. Barahonak azpimarratzen du antizentralismo kutsua eta foruen aldeko jarrerak nabarmenak zirela eta honetarako hainbat dokumentu erakusten ditu. Ikuspegi berria da, orain arte ez bait zen horrelakorik aipatzen, garai horretarako.

Berlinen, 1857.an; Markina-Etxebarriko 1823.eko bertsoak argitaratu ziren, eta aurkezten dizkiguten mami politikoen arabera, R. Barahonaren tesiak indartzen dira (1).

Bestalde, kontrajarririk zeuden taldeak, oinarri sozioekonomikoak hala bultzaturik edo baldintzaturik ikusten ditu. Hiritarrak salerosketetan murgilduak versus lur barrukoak. Nire ustez banaketa hau sinplegia gertatzen da eta

---

(1) Ikus C.A.F. Mahn Dr.: *Denkmaeler der Baskischen sprache*. Berlin 1857, 1967.an Jakzimibez argitaratua, Anthropological publications Posterhout-Niederlande.  
Irigoin Alfonso: "Konstituzioko dama eta beltzak" in *Zehatz* 1978.eko Uztaila-Abendua, 43-70 orr.

ahaztu egiten da lur zabalean ere merkataritza eta industria erroturik zeudela. Bestalde Novia de Salcedoren buruzagiaren pentsakera, ekonomiko librekanbista eta politikan erabat tradizionalista, nola ulertu daiteke? Dena dela trienio liberalari buruzko kapituluak jakingarriak dira.

Ondoren kontraerreboluzioaren garaipena atzerriko indarren laguntzaz eta gizarte molde berriaren, eraikintzaz absolutismoan finkaturik, ari da. Bizkaia eta Estaduko administrazio buruen artean tirabirak nabarmenak dira; erresuma baterakoiaren projektua indarra hartzen doa eta gatazkak, finantzen, arloan, polizia berriaren zabalkundeaz eta abar, foruen arazoa lehen maila dagoelarik.

Bizkaiko kontzerbadoreek patrimonializatu egin zuten Foruen esan nahia eta administrazio autonomoaren garapena era bat lotu zuten absolutismoaren nagusitzara, absolutista moderatu eta zentralistekin iskanbilak eduki arren. Jakina, askatasun indibidualak desagerturik daude eta inkizizioa indarrean.

Novia de Salcedo aldiko ideologo eta politikoa bazen, Valdespinak indar armatu sendo bat antolatzen saiatu zen eta lortu ere, 10.500 pertsona herrietako konpainietan eraturik edukitzera iritxi zen. Gobernu zentralerako ministrariak beldurturik zeuden, berez indar armatua Foruen defentsarako zela, susmatzen bait zuten.

Garai honetan polizia politiko gogor bat martxan jarri zuen Diputazioak, liberalen mugimendu guztiak kontrolatzeko.

Hara bada, Bizkaian 10 urtetan 1823-1833 gizarte politiko bat, pautak berriez eratuta, sortu zuten, militarismoa eta totalitarismo teokratiko ereduak zutabek zirela, Foruen sistemak interpretazio berezi eta unilaterala hartzen zuela. Arazo hauen azterketan datza nire ustez, liburuaren ekarpen garbiena Krisialdi ekonomikoaz bada beste kapitulu bat, eta argi eta garbi erakusten du klaseen arteko burruka areagotu eta bizkortu zela, etxekojaun txirotu eta gainontzeko deserrotuentzat karlismoak beharbada protekzio paternalista bat zekarren edo suposatzen zuten.

Laburbilduz, antizentralismoaren ekintza, bertako foruen onetan, garai honen ezaugarri bat izango dela, argi frogatzen du. Jakina, guzti hau, erlijio eta ohizko sistemaren defentsan kokatzen da. 1823-1833.eko esperientziak erabat baldintzatu zuen egoera eta gizarte eredu bat, karlistena alegia, eskaini zuen, tradizionalismo teokratikoarena, foruak barne alegia, eta guda 1833.eko urte aurretik jadanik pilpilean bizi zela, edo hasi zela, agiri nahi du autoreak. Egoera ekonomiko materialetik at, eguneroko bizimoduaz dauden ikuspegi politiko ideologikoak ere garrantzi haundikoak direla, aipaturiko zazpi urteko gerraren zergatiak (bereziki zentralismo-antizentralismo kronoaesana) arakatzeko unean, frogatzen saiatu da R. Barahona.

Jose Ramon Urkixo Goitiaren ikerlanek, zazpi urteko gudaldia, bera, arakatzeko dute. Orainarte han hemenka artikulu sendoak idatzi ditu, berriztasun kutsua daniela. Honako honetan, *Represión y disidencia durante la primera*

*guerra carlista. La Policia carlista 1985.ean. Hispania* aldizkarian argitaratu zena azalduko dugu.

Karlisten indar blokea du aztergai eta ohizko uste bat, zeinaren bidez, karlistek herriaren laguntza izan zutela, liberalismoaren zapalkuntzaren aurka, nahiko kolokan eta deseginik agiri da. Karlismo moeta desberdinak daude, ez dago bloke homogeneousirik tirabirak eurrez gertazen ziren. Karlisten administraziopean zeuden larraldetan disidentziak ugariak izan ziren, eta guzti hau kontrolatzeko, polizia gogor eta zentralizatua sortu zuten karlistek.

Poliziaren erakundea, Jose Bonaparteren garaian nolabaiteko hastapena izan zuen, baina gerora, inkizizioaren futzioa kolokan jarri zenean, 1823eko urtez geroztiz sendotu zen. Euskal administrazioak, ikusiko dugun bezala, poliziaren zereginak bere gain hartu zituen. Baina gudaldian eten gabeko tirabirak gertatu ziren Diputazio buru eta erregearen burokraziaren artean. Diputazioek ez zuten galdu nahi ahalmenik eta polizia zentral baten egitura-zeak, erregearen inguruan sortu zen burokrazioaren nagusitza, zekarren.

Polizia karlistaren berezitasunak azaltzen zaizkigu; bereziki bere zeregina, populazioaren kontrolatzeko, eta ideologia teokratikoaren defentsan finkatzen zen. Bestalde herrietako udal agintarien fitxa politiko ideologiko eta morala burutzen saiatu zen, guzti hau egoera baten adierazpena zelarik, hots, 1836.etik, populua gudaz nazkaturik ondamendia eta zorrak baino ez bait zituen ekarri, karlistenganako sua eta garra itzaltzen hasia zen. Polizia honek, liburuak ere errekisatu zituen. Interesgarria, garai hartako buruzagiek zer irakurtzen zuten ezagutzea, batez ere Frantziako kultur korronteen eragina nabari da, J. R. Urkixok eskaintzen duen liburuaren zerrendan.

Azkenik, poliziaren txostenetan oinarriturik karlismoaren oinarri sozialak eta politikoak nun zeuden azaltzen zaigu: Erdi mailako hiriak, karlismoaren zutabetzat eduki ohi dira, baina ez dago hain garbi, Gipuzkoako hirietan ez baita horrelakorik agiri. Bestalde, Plentzian eta Lekeition emakumezkoen bata-loi liberalak azpimarratzekoak ditugu. Disidentziaren fenomeno eskualdez eskualde kuantifikaturik agertzen da J. R. Urkixoren lanean. Jakina, karlisten-tzat bere aldekoak ez zirenak, kontrarioak ziren, besterik gabe. Ikerlan honen ekarpen garrantzitsuena honetan datza gure ustez: Karlisten blokea ez zuen, uste izan den batasuna, matxinadak ere gertatu zirela karlisten baitan alegia. Momentu batetan, barneko batasun hori eta herriaren indiferentzia kontrolatzeko, polizia indar gogorra eraiki beharrean egon zen, zeren gerraren dinamikak huts hutsean ez bait zuen premiazkoa bihurtzen. Funtzio errepresiboa nabarmen nabarmena izan zuen, halako kordio sanitario ideologikoa sortu nahian. Indarrean ezarri zenean tirabirak sortu ziren batzuen ustez Foruen askatasunaren aurka antolaturik bait zegoen, azpi azpian “intransigentes” eta “contemporizadores” arteko burrukaren islada.

Azkenik atera berri den liburu batez berba bi idatzi nahi dugu, ildo berriko ikerketa eta Euskal Herriko ekialdea arakatzeko R. del Rio Aldazen liburuaren izenburuak, ez du beharbada liburuaren gunea erabat

isladatzen, 1820.tik 1824.ra baino ez baita irixten bere ikerketa. Barahonaren Bizkaiari buruzko azterketan bezalaxe, Nafarroan ere, urte horietan gertatzen direnak, belaunaldi luze baten aitzindaritzaz legez har genezake. Autoreak zehatz mehatz sorburu berriak erabiliz, azterketa politiko ideologiko sakona eskaintzen digu, garai erabat ezezagunari buruz eta handik hamar urtetara sortu zen guda zibilarren lehen aztarnak argi eta garbi ikusten ditu. 1820.eko iraultza Nafarroan izan zuen islada agiri zaigu, kontrairaultzaren muina hobeki ulertzeko; maila bitan bereizten du azken hau, sistemaren barrutik eta burruka armatuaz antolatzen dena. Laborarien errebolta bat agian? Sarritan uste ohi da iraultza liberal berez laborarien aldeko iraultza zela. Eta ez zen horrelakorik inondik inora. Baina horretaz harritzerik ez dago ez eta aintzeko erregimenean jende gehiena subsistentziaren mugan, urtean zehar maiz gose zela. Horregatik laborariak unean uneko burruketan unean uneko bere aldeko egoera zuzen zuzena defenditzen saiatzen ziren, historiaren norabide “lineal” eta “aszendentea” kontutan izan gabe, gehienetan denboraren ikuspegi zirkularra zutelako. Kontrairaultza laborarien artean indarrez inposatzen zela ere eta ondoko urteetan errepresio gogorra sendotu zela ohizko gizarte tradizional, erlijio eta foruen izenean frogatzen digu; azpimarragarria dugu ultrarrealista eta absolutista moderatuen arteko liskarrak, ondoko urteetako dinamika ulertzeko. Halako polemika kutsua dario liburuari eta sarritan iruditu zaigu, ohizko historiografiako zenbait tesi goraiatzeko dituela helburu batez, ondoren sendoago astintzeko. Oraindik badirudi historiaren interpretapenak bere indarra dutela eguneroko politikagintzan, lege zaharrea gertatzen zen antzera, Nafarroako giro politikoa eta unibertsitarioa ezagutu ezker areago oraindik. Beraz, beharbada arrazoirik ez da falta. Hala ere gure ustez, gainditu behar dugun joera da, ez baita probetxugarria besterik gabe hemeritzagarren mendeko partidismoak paradigma eta ideolekto berriez errepikatzea. Gertakizun historikoak unean uneko eta garai bakoitzeko munduan, espazioan eta denboran azaldu eta ulertzen saiatu beharko ginateke. Ekarpen nabarmen baten aurrean gaudela, ez dugu dudarik eta Euskal Herriko hemeritzagarren mendearen behar bezalako interpretapena lortzeko bidean jartzen gaitu R. del Rio Aldazen moduko ikerketak, azterketa politiko ideologikoak indar berriztatua hartzen dutelarik.

Honelako ikerlanek jakinduriaz, ereduioz beteak, iturri berrietan haseak, laster aldatuko dituzte gure ikuspegiak eta iraganaren ezagumendua zehatzago eta geureagoa izango da.

*Joseba Agirreazkuenaga*

E.H.U.eko irakaslea eta Eusko Ikaskuntzako Historia Saileko aitzindaria